

/ Nabarmentzekoak

- > 60 urtetik gorakoentzako jarduera fisikoko ekimena kalean (2. or.)
- > "Musika Eskola Irekia" zikloak Beethovenen bizitza eta lana gerturatuko dizkio publikoari (3. or.)
- > Dantza eta teknologia berriak, Arte Eszeniko Jardunaldien azken asteburuan (3. or.)

GETXOBONO 2020

GetxoBono urtarrilaren 5era arte luzatuko da eta txartel bakoitzeko bonu-kopuru mugagabea eskura daiteke (4. or.)

Komiki Jardunaldiak. Hilak 30 eta 31, ostirala eta larunbata, Romo Kultur Etxean, topaketak, hitzaldiak, aurkezpenak...

**A-
GENDA**

Kontzertua. Hilak 30, ostirala, 20:30ean, Pablo Ríosen "Amor en tiempos de virus" diskoaren aurkezpena, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Sarrera: 5€.

Talde politikoekin partekatzen ari da eta 2017-2030erako HMIPean jasotako eremu berriak ezartzeko aukeretan oinarritzen da

Aparkaleku Arautuaren Zerbitzua Romo, Santa Ana, Ereaga eta Algortako eta Areetako alde batzuetara zabaltzeko proposamena

Udalak Azalera Ibilgailuen Apar-kaleku Arautuaren Zerbitzurako (TAO) proposamen tekniko berri bat du esku artean, eta bere berri-tasun nagusiak dira araututako aldeak hurrengoetara zabaltzea: Santa Ana osoa, ia Romo osoa, Zugazarteko 40 partzela, Algortako gunek batzuk eta Ereaga (udan soilik).

Proposamen berriak 2017-2030rako HMIP, Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Planak aurreikusten dituen aukerak biltzen ditu, hau da, TAO gunek zabaltzeari dagokionez, eta prozesu parte-hartzaile baten eta herritarrekin, adituekin, alderdi politikoekin eta mugikortasunean inplikaturako erakundeekin partekatutako lan baten emaitza izan zen.

Proposamena udal talde politikoekin partekatzen ari da aste honetatik aurrera, beraiekin elkarriketa erronda bat zabalduz, beren iritzia era iradokizunak biltzeko, ondoren, hori 2021ean zehar abian jarri ahal izateko adostasun posible handienak lortze aldera. Proposamena merkataritzako alorrarekin ere partekatzeko asmoa dago. Errondaren ondorioek azkenean abiaraziko den proposamena ekarri beharko dute; hori webgunean eta hainbat lekutan jarriko da ikusgai, herritarrek kontsulta dezaten, eta behar bezala jakinaraziko da.

Berritasun nagusiak

Sei eremutan zabaltzea proposatzen da. Berritasun nagusiak honako hauek dira: araututako aparkaleku-eremua Santa Ana osora zabaltzea, ia Romo osoan ezartzea, Zugazarten 40 partzela handitzea, eta Algortan, Telletxetik barrena handitzea Piñaga kale-raino, azken hori ere barne; Maria Goiri kaleko zati bat; Euskalherria



kalea Foruen biribilgunearen eta Alangobarri kalearen artean; Juan Bautista Uribarri kalea, Santiña kalea, Alangobarri kalea eta Alango kalea, Foru eta Eretza artean. Basagoiti etorbidean ere, Torre edo Orobiorekin bat egiten duen lekuan, Tellagorri plazan edo San Nikolasen.

Halaber, espres eremuak (merkatariek egindako eskaria) bi ere-

mutan ezartzea proposatzen da: Algortako geltokiko zabalgunean eta Areetako Las Mercedes kalean. Era berean, udaletxearen atzeko udal-orubean aparkatzea goizeko ordutegian arautzea proposatzen da, Epaitegiei, San Inazio herri ikastetxeari, Ogasun Bulegoari eta Ertzaintzaren ertzain-etxeari zerbitzua emateko. Azkenik, Erea-gako hondartzaren inguruan apar-

katzeko zerbitzu arautua ezartzea ere planteatzen da, soilik udan, ekainetik irailera.

2019an TAOk 1.414 plaza arautu zituen (1.029 Areetan eta 388 Algortan, batz bestek 28 plaza murriztu baitziren Algortan, lanak direla eta). 152.621 bat pertsonak erabili zuten zerbitzu hori eta guztien artean 903.102 aparkatze egin zituzten.

Udala lanean ari da proposamen alternatibo bat egiteko pertsonaia horiek herritarrengana hurbiltze aldera

Getxolandia, eta Olentzero/Mari Domingiren eta Errege Magoen desfileak bertan behera geratu dira

Kalejira eta desfileak egitea eragozten duen COVID-19ren prebentzioari buruzko egungo legeriaren ondorioz, aurten ezin izango da Getxolandia Gabonetako haur parkea antolatu, ezta Olentzero eta Mari Domingiren, eta Errege Magoen Kabalgataren desfile tradizionalak ere.

Une honetan, udala lanean ari da proposamen al-

ternatibo bat egiteko, batetik, ikazkinaren inguruko jarduerak urtez urte antolatzen dituzten batzordeekin, Getxoko haurrek Olentzero eta Mari Domingi ikusteko aukera izan dezaten. Bestetik, Errege Magoen harrera batzuk antolatzeko ere lan egiten ari da, eta horietarako izena eman beharko dute herritarrek, aurretiko hitzordua eskatuta.



URRIAK 22 OSTEGUNA

Odola ematea. Areetako Geltokia plazan. Goizez eta arratsalde.

URRIAK 23 OSTIRALA

38. Arte Eszenikoaren Jardunaldiak. Dantza. Muxikebarriko Ereaga aretoa, 21:00etan, "Around the world", Brodas Bros taldearekin. Sarrera: 12€.

Liburutegiaren Eguna. Liburutegiaren Eguna dela eta, udal zentroetan egindako mailegu bakoitzeko opari bat emango da.

Haurtentzako tailerra. Romoko (17:00-18:00) eta Villamonteko (18:30-19:30) liburutegietan, "Guztiok garrantzitsuak gara" ipuin eta eskulan tailerra. 4-6 urte. Elebiduna. Aurretiko izen-ematea: www.getxo.eus/apuntazaitze

Kontzertua. 19:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Musikeneko Masterreko ikasleen errezitaldia: metal boskote eta hari hirukotea..

Ibar Nagusien Etxea Elkarte. Batzordearen zati bat berritzeko hautagaiak aurkezteko azken eguna. Bozketak: azaroaren 17an (Covid-19 protokoloa betez).

URRIAK 24 LARUNBATA

38. Arte Eszenikoaren Jardunaldiak. Nazioarteko Dantza Eguna. Muxikebarriko Ereaga aretoa, 13:00etan, estilo anitzeko koreografiak bertoko dantza-eskola eta akademiak ikasleen eskutik. Gonbidapenarekin: RKE-Romo Kultur Etxean, Muxikebarriko bulego berrian goizez eta Muxikebarriko txarteldegian arratsalde. **Haur antzerkia.** Muxikebarriko Arrigunaga aretoa, 18:00etan, "Pinocchio", Gorakadarekin. Euskaraz. Familien-tzat. Sarrera: 6€.

Ingurumen Aretoa. www.ingurumenaretoa.getxo.eus

URRIAK 25 IGANDEA

38. Arte Eszenikoaren Jardunaldiak. Antzerkia. Muxikebarriko Ereaga aretoa, 13:00etan, "Tonbola", Hikarekin. Euskaraz. Adin guztientzat. Gonbidapenarekin: RKE-Romo Kultur Etxean, Muxikebarriko bulego berrian goizez eta Muxikebarriko txarteldegian arratsalde. **Dantza.** Muxikebarriko Arrigunaga aretoa, 19:00etan, "Electrical Flower", Elektrart Dantzaz taldearekin. Sarrera: 12€.

Antzerkia. Romo Kultur Etxean, 19:00etan, "Circus of dreams", La Pacheca Collective taldearekin. Antolatzailea: Besarkada Federa-

zioa. Sarrera: 3€.

Ingurumen Aretoa. www.ingurumenaretoa.getxo.eus

URRIAK 28 ASTEAZKENA

Musika ikuskizuna. 19:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, "Chopin y el piano", Impromptu bikotearen eskutik (José Manuel Cacho, biolina, eta Víctor Jiménez, pianoa). Sarrera: 5€.

Versadas, poesia kluba. 2020/21 denboraldiaren hasiera. Algortako Kultur Aretoa, 19:00etan, poesiaren zaleen bilera, norberaren eta bestearen poemak irakurri eta entzuteko. Oraingoan, Clara Janés.

URRIAK 30 OSTIRALA

Komiki Jardunaldiak. Romo Kultur Etxean, 17:30ean, Nacho Vigalondorekin topaketa: "Mis tebeos favoritos"; 18:30ean, "Nuevo Comix Underground" hitzaldia, eta 19:30ean, "Cómics y rol, pasio bikoitza" mahai-ingurua.

Kontzertua. Pablo Ríosen "Amor en tiempos de virus" diskoaren aurkezpena, 20:30ean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. 5€.

URRIAK 31 LARUNBATA

Musikala. 18:00etan, Muxikebarriko Ereaga aretoa, "¡Recuérdame! El tributo a Coco", Espainiako Antzerki Musikaleko Konpainiarekin. Familiarra. Sarrera: 10€.

Komiki Jardunaldiak. Romo Kultur Etxean, 12:00etan, komikien aurkezpena: "Todas nosotras"; 13:00etan, Sole Otero eta Ana Galverekin elkartzea; 17:00etan, "Cómics en Halloween. Tebeos, pelis y series de terror" hitzaldia; 18:00etan, komikien aurkezpena: "Subnormal. Una historia de acoso escolar"; 19:00etan, mahai-ingurua: "Leyendas del tebeo. Cómic infantil y juvenil en el recreo"; eta 20:00etan, José Luis Agredarekin topaketa: "El artista múltiple. Cómic, ilustración y animación".

Ingurumen Aretoa. www.ingurumenaretoa.getxo.eus

AZAROAK 1 IGANDEA

Zinemabiki. Muxikebarriko Areetako aretoa, 12:00etan, "Bihurri: jauretxetik kale gorria", adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

Haur zinea. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 17:00etan, "Koko dragoi txikia oihanean", gaztelaniaz, adin guztientzat. Sarrera: 2,50€.

Musika Eskola Irekia. Kontzertua. Muxikebarriko Ereaga aretoa, 19:00etan, Quiroga laukotea: "Beethoven". Sarrera: 12€ (dagoeneko salgai).

Antzerkia. Emakumeak eszena zirkuitua. Romo Kultur Etxean, 19:00etan, "El rescate", Totum taldearen eskutik. Sarrera: 3€ (dagoeneko salgai).



60 urtetik gorakoentzako jarduera fisikoko ekimena kalean

Getxo Lagunkoia programak eta Getxo Kirolak kalean jarduera fisikoko doako ekimena jarri dute abian, Romo Kultur Etxean egiten zirenen ordez, egungo osasun neurriengatik horiek bertan behera geratu ondoren.

60 urtetik gorako pertsonentzat den ekimenaren helburua da herritar horiei jarduera fisiko osasungarriak eskaintzea, eta, aldi berean, gizarteratzeko aukera ere.

Horretarako, talde egonkorak osatuko dira Algortan eta Romon, eta honako aukera hauen artean hautatu ahal izango dute: ibiltzea, kaleko gimnasia, orientazioa eta egokitze fisikoa... horietako batzuk Biotz Alai plazan edo Txabarri Zuazo parkean (Gobelaurre). Jarduerak osasun neurri guztiak (maskara, segurtasun tartea, tenperaturaren kontrola...) betetzen eramango

dira aurrera, eta horregatik partaide bakoitzak bere materiala erabili beharko du, esate baterako goma elastikoak eta toalla. Interesatuek 94 466 00 22 (RKE) telefono zenbakian eman dezakete izena. Bestalde, yoga eta pilates online eskaintzen jarraituko da eta baita paseatzera animatzen duen *Getxon oinez, 1000 pausu baietz* izeneko ekimena ere.

"Bizilagunak, aldameneko familia" ekimenaren jarduera alternatiboak

Kultur artekotasuna eta bizikidetzaren sustatzen dituen Bizilagunak ekimenak hainbat jarduera antolatu ditu datozen egunotarako, egungo segurtasun neurriekin, COVID-19ak eragindako osasun egoera dela medio, bertako eta jatorri atzerriko pertsonak mahai batean elkartzen zituen *Bizilagunak, aldameneko familia* izeneko bazkariak aurten bertan behera geratu direlako. Horien ordez, hurrengo larunbatean, urriak 31, ibiltzeko irteera bat izango da, Portu Zaharretik Azkorriko hondartzara, mozorroturik, udalaren, EGIZU eta Ibilki elkarten eta Getxoko Etorrinak Plataforma Federazioaren eskutik. Egun

horretan gainera kometak mugituko dituzte airean, azaroaren lehen ospatzen den Hildakoen Eguna dela eta. Horretaz gain, Getxoko familien bideo bat zabalduko da, eta horretan bakoitzak bere etxean bere herrialdeko bazkari baten istorioa kontatuko du, udalerraren aniztasuna islatzeko, eta aldi berean, kultur artekotasuna eta euskararen erabilera sustatzeko. Ondoren, azaroan eta abenduan, parte hartzeko jarduera gehiago antolatuko dira. Ekimenean parte hartu ahal izango dute bizilagunakgetxo@gmail.com helbidean edo 622433085 telefono zenbakian.

Garbikerren Garbigune mugikorra Areetan

Ostirala arte, hilak 23, Garbiker (Foru Aldundiari atxikitako enpresa publikoa) elkarrearen Garbigune mugikorra egongo da Areetako Geltokia plazan. Horren helburua da birziklapenaren kontzeptua errazagoa eta hurbilagoa egitea, ohiko garbiguneetara joateko aukera emateaz gain, udal-mugarte barruan bertan ere, udalerriko erdigunean, egin ahal izatea. Garbigune mugikor honek udalak aspaldi eskaintzen duen Garbigune mugikorraren zerbitzua indartuko du, udalerriko zenbait tokitan astean zehar eskaintzen dena. Utzi daitezke elektrotresna txikiak, sukaldeko tresnak, etxeko olioak (ontzi itxietan), sakelako telefonoak, kableak, pintura eta disolbatzaileak, aerosolak, kutsatutako xurgatzaileak, toner eta tintazko kartutxoak, metalezko eta plastikozko kapsulak, pilak, CD, DVD eta kaseteak, erradiografiak...



- **Arropa salgai** emakumezkoak eta gizonezkoak janzteko neurri handiak (70 neurriraino), %70era arte, negozioa uzteagatik. Tel.: 685 754 758.

- **Algortako andrea** adinekoak, haurrak edo etxeak garbitzeko prest dago. Tel.: 675 58 86 27.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazko tasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaurilaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

STAFF Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza irabazteko aldiak eta informazioak agertzen dira astero. Komunikazio zinegotzia: Amaia Agirre Zuzendaria: Javier García. Erredaktoreburua: Itziar Aguayo. Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo.

Urgull Kalea z.g., 4º. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. E-posta: getxokoudalarentsa@getxo.eus Arte arduradunak: Bostnan Bilbao S.L. Inprimaketa: Bilbao Editorial Producciones S.L.U. Banaketa: Lantegi Batuak Gordailu legala: BI-388-87

ADHN existitzen da

Urriaren 27an, Getxo laranjaz argituko da, ADHN bere estatu-egunean ikusgai jartzeko: Areetako kaia eta Alangoko eta Portu Zaharretiko igogailuak. Atera ezazu argazki bat argiztatutako leku horietakoren batean, eta igo ezazu ahidabizkaia@27otdah helbidera.

“Circus of Dreams” RKEEn

Romo Kultur Etxea-RKEk *Circus of Dreams* antzezlanaren hartuko du igandean, hilak 25, 19:00etan, Pacheca Collective-ren eskutik. Antzezlanaren emakumezko aktore baten lanbidearen gorabehera buruzko bidaia autobiografikoa da. Sarrerak 3 euro balio du.

Bartzelonako kabaretaren sorleku batean, Teatre Llantíol mitikoan, jaiotako *Circus of Dreams* diziplina antzeko ikuskizunak uztartzen ditu antzerkia eta musika (Sizilia-ko, Frantziako edo Klezmerreko abestiak, biolina, akordeoia...), ilusionismoa, objektuen antzerkia, clown-a, poesia bisuala, kritika soziala eta umore handia. Bertan, aktore bakar batek antzeztzen dituen zenbait pertsonaia agertokitik desfilatzen dira.

Horrela, La Pacheca Collectivek berriz bisitatzen du bere sortzailetako batek, Bea Insa aktoreak, zuzendariak eta *Circus of Dreams* honen interpretari bakarrak sortutako ikuskizun bat. Bere jatorrizko bertsioan, hiru urtean egon zen Bartzelonako Teatre Llantíolen, etenik gabe. Horren ostean, hazten joan zen Holandako Ship of Fools konpainiako protagonistaren ibilbideari esker (Insak 8 urtez bidaiatu zuen ontzi-antzerki horretan Mediterraneoan eta Atlantikoan zehar, portuz portu bere ikuskizunak taularatu). Orain, La Pacheca Collectivek *Circus of Dreams* berritua aurkeztuko du Getxon, ikuskizun berriak dituen hitzordurako beren-beregi diseinatutako bertsio batean.



Ekimenaren aurkezpena Irantzu Uriarte Kultura zinegotziaren eta Joxean Llorente Musika Eskolako zuzendariaren eskutik

“Musika Eskola Irekia” zikloak Beethovenen bizitza eta lana gerturatuko dizkio publikoari

Ludwig van Beethoven izango da *Musika Eskola Irekia* zikloaren ardatz nagusia, Andrés Isasi Musika Eskolak eta Kultur Etxeak abian jarrita, musikaren arloko gai eta pertsona esanguratsuak herritarrei hurbiltzeko. Ekitaldi guztiak Muxikebarrin izango dira, musikari eta konpositore alemaniar handiaren 250. urteurrena gogoratzeko. Bere bizitza eta lana ezagutzera emateaz gain, beste arte mota batzuekiko loturak sortuko dira, adibidez zinea edota bertsolaritzarekin. Zikloaren saio guztiarako sarrerak salgai daude Kultur Etxearen ohiko saltokietan.

Zikloa asteazkenean, urriak 21, abiatu zen, Mercedes Albaina adituaren eta Kabuki laukotearen *La luz de Beethoven: 250 años de humanismo musical* izeneko hitzaldi musikatuarekin. Igandean, azaroak 1, 19:00etan, kontzertua izango da Cuarteto Quiroga talde ospetsua-

ren eskutik, 2018. urtean Musika Sari Nazionala eskuratu zuena. Saioan Beethovenen la minorreko 15. (op. 132) eta fa maiorreko 16. (op. 135) kuartetoak interpretatuko dituzte.


Azaroaren 11n, ordu berean, Impromptu bikoteak *Beethoven y la sinfonía* izeneko diziplina antzeko ikuskizuna emango du. Horretan, solasaldia eta zuzeneko musika eta proiektzioak uztartuko dira. Azaroaren 25ean, asteazkenean, 18:00etan, Miguel Ituarte piano-jotzaile getxotarrak *La obra para piano de Beethoven, aventura musical e instrumental* solasaldi musikatu emango du eta horretan zuzeneko piezak joko ditu, eta 20:00etan *Beethoven y el piano: de la niñez a la madurez piano* errezitaldia.

Abenduaren 9an, asteazkenean, 19:00etan, Joseba Beristain doinubanden konpositore eta irakaslea jenio alemanak bederatzigarren

munduan izan duen eraginaz arituko da euskarazko *Beethovenen musika zineman* hitzaldian eta horretan zenbait pelikulen pieza musikalak entzungai izango dira. Handik bi astera, abenduaren 23an, Andoni Egaña bertso-lariak eta Xabier Lizaso pianistak kontzertua emango dute. Horren bitartez *Bederatzigarrena* Beethovenen sinfonia ospetsua eta musikari handiaren garaikidea den “bederatziko” izeneko bertso neurria elkar lotuko dituzte. Bertan Beethovenen lana eta bertsogintzan hain berezi izan den neurri horretan sortutakoa errepasatuko dituzte. Zikloa urtarrilaren 5an amaituko da, 12:00etan, Euskal Herriko Gazte Orkestraren eskutik. Horrek Beethoveni buruzko kontzertu monografikoa eskainiko du, musika klasikoaren iraultzaile handienetako bat bilakatu zuten pieza batzuekin.

Dantza eta teknologia berriak izango dira protagonista Arte Eszeniko Jardunaldien azken asteburuan

Asteburu honetan bukatuko dira Arte Eszeniko Jardunaldiak. Ostiralean, hilak 23, 21:00etan, Brodas Bros dantza konpainiak bere azken ikuskizuna, *Around the World* aurkeztuko du, era futurista eta aldi berean bihozberan beren bizipenak erakusten dituen lana (Mapping-a, proiektzio interaktiboak, aireko dantza, argiak eta led-jantziak...). Larunbatean, urriak 24, 13:00etan, Nazioarteko Dantza Eguna ospatuko da. Horretan, bertoko dantza eskola eta akademiek estilo antzeko koreografiak erakutsiko dituzte: dantza neoklasikoa, garaikidea, flamenkoa, klake, urban dance eta lindy hop, besteak beste. Arratsaldean, 18:00etan, haurrek *Pinocchio* lanez gozatzeko aukera izango dute, eskar-



Around The World

mentu handiko Gorakada taldeak sortu duen Carlo Collodiren ipuin famatuaren bertsioa, hain zuzen ere. Igandean, hilak 25, 13:00etan, Hika konpainiak *Tonbola* antzeztuko du, absurdoaren kontzeptua umoreaz eta musikaz baliatuta jorratzen duen euskarazko kabaret lana. 19:00etan, Elektrart eta Dantzaz taldeek jardunaldiei amaiera emango diete *Electrical Flower* ikuskizunarekin. Lan horretan dantzak eta arteak naturarekin dituzten harremanak gerturatuko dizkiete ikusleei eta bidaia poetiko batean gorputz adierazmenaren plastikotasuna eta arte digitalen piezez sortutako eszenografia bateratu dituzte sortzaileek.

Informazio gehiago: <https://bit.ly/3dEQIlg>

Udalerriko dendetan, ostalaritzan eta enpresetan kontsumoa suspertu nahi da

GetxoBono urtarrilaren 5era arte luzatuko da eta txartel bakoitzeko bonu-kopuru mugagabea eskura daiteke

GetxoBono 2020 kanpaina, udalerriko denda, ostalaritza eta enpresei laguntzea eta Getxon kontsumoa sustatzea helburu duena, urtarrilaren 5era arte luzatuko da eta berrikuntza batzuk planteatzen ditu. Oraingo honetan, 40€-ko bonu-kopurua handitu da, eta txartel bakoitzeko bonu-kopuru mugagabea eskuratu ahal izango da (erosketa bakoitzean gehienez ere lau bonu erabiltzeko baldintzari eutsiko zaio).

Kanpaina osoan, 1.720.000€-ko bonuak jarri dira martxan azkenean. Ohikoa denez, 40€-koek 50€-ko kontsumoak egiteko balio dute eta 20€-koek 25koak.

Kanpainaren baldintza berriak Getxon planak egiten dituzten merkataritza, ostalaritza eta enpresetako mahaiekin adostu dira.

COVID-19aren pandemiak ekonomian eragin dituen ondorioak direla eta negozioek dituzten gorabeherak ikusita, ekainaren 25ean jarri zen abian GetxoBonoaren kanpaina, aurreko urteetako bonoena baino bolumen nahiko handiagoarekin, iraupen handiagoarekin eta zenbateko desberdinekin.

Berton erosi! goiburua pean, 20€-ko 41.280 bonu eta 40€-ko 13.760 bonu jarri ziren salgai. Onespen handieneko bonuak 40€-koak

Berton erosi! ¡Dale vida a Getxo!

GETXO BONO 2020

| | |
|--|--------------------------------|
| MERKATARITZA OSTALARITZA AISIALDIA | COMERCIO HOSTELERIA OCIO |
|--|--------------------------------|

20€ → 

40€ → 

Kontsultatu atxikitako establezimenduak hemen: www.getxo.eus/getxobonoa
Consulta los establecimientos adheridos en www.getxo.eus/getxobono

Getxo  Enpresa  ROMO BIZIRIK  Asoghe  Getxo Ekonoma - Sustapena
Premiación económica

direnez, 10.320 gehiago plaza-ratu dira, eta 2020ko kanpaina honetan, guztira, 24.080 dira. 20€-koak, berriz, erdira murrizten dira, 20.640, orain arte eskuratutakoak gutxiago izan direla kontuan hartuta.

Getxoko establezimenduetan kontsumituz saltokiak, ostalari-

tza eta enpresak berraktibatzen lagundu nahi dutenek bonuak hemen eros ditzakete: Kutxabanken webgunean <https://tickets.kutxabank.es> (bonuak etxean inprimatuta) edo zuzenean Kutxabanken kutxazainetan eskuratu ahal izango dira, edozein kreditu- edo zordunketa-txartel erabiliz.

Bonuak kontsumitu ahal izango dira txikizkako merkataritzan, ostalaritzan edarien kontsumo ez-esklusiboetarako, ile-apaindegietan, edertasun-aretoetan eta Getxo 2020 Planetan beren zerbitzuak eskaintzen dituzten aisialdiko enpresetan.

<https://www.getxo.eus/eu/getxolan/noticias/481>

KIROLAK



Getxoko lehoi berria

Oier Zarraga (Getxo, 1999-1-4) Athletic Clubeko lehen taldera iritsi diren herriko futbolariaren zerrendan sartu da. Oierrek lehoi gisa jokatu zuen joan den igandean, San Mameseko Levanteren aurkako partida ofizialean (70. minutuan zelairatu zen). 2009/2010 denboraldian, Romo taldetik joan zen Athleticera eta zelaiaren erdian jokatzeko, pibote edo erasoko erdilari gisa.

Getxo Arraunek ere emaitza ona izan zuen

Raspas Arraun klub onena Espainiako Txapelketako dominazerrandan, aulki mugikorrean

Raspas del Embarcadero Arraun Elkarteak izan da talderik onena aurreko asteburuan Legution jokatu-tako aulki mugikorreko Espainiako Txapelketan, 23 urtez azpiko, Absolutu, Egokitu eta Beteranoen kategorietan: urrezko sei domina, zilarrezko bat eta brontzezko beste sei. Raspasek, gainera, Paco Montes saria jaso du, 1995ean Andaluziako Federazioak sortua, Espainiako txapelketetan urrezko domina gehien lortzen dituen taldearentzat. Gazteen, 23 urtez azpikoen eta absolutuen kategoriak batzen ditu. Sari hori Sevillatik kanpoko klub batek jasotzen duen lehen aldia da.

Mikel Barturen erakundeko lehen-dakariak adierazi duenez, "oso harro gaude. Aspaldi iritsi nahi genuen Espainiako klubaren arteko domina-zerrendako toki gorenera, eta oraingo

honetan lortu dugu".

Honako kategoria eta modalitate hauetan lortu dira urrezko dominak: gizonezkoen 23 urtez azpikoan; eta emakumezkoen absolutuan: 4x, 8+, 2x, 1x eta 4-. Zilarrezko domina bakarra gizonezkoen scull bikoitzak (2X) irabazi du Raspasentzat. Eta, azkenik, txapelketa honetan klubaren parte-hartze bikaina osatzeko, brontzezko beste sei domina gehitu behar dira, hauek ere kategoria absolutuan: gizonezkoetan, 2-, 1x, 4-, 4x eta 8+; eta emakumezkoen 2-.

Halaber, Getxo Arraunek ere emaitza ona izan zuen txapelketan. Bosgarren postua 23 urtez azpiko, absolutu eta arraunketa egokituan, azken kategorian horretan lortutako urrezko domina batekin; eta hirugarren postuan beteranoetan, urte eta brontze bat lortuta.